

HIRIA ETA ELIKADURA

XX. mendeko hiriaren eredua porrot bat da. Premiazkoa da beste hiri-eredu bat pentsatzea eta gauzatzea, "trantsizioko hiri" bat, lurraldea, bizitzak eta espazio komuna edozein jardueraren erdian jarriko dituen. Ildo horretan, gure ustez, aukera ederra da elikadura pentsamendu urbano, politiko eta hiritarrean txertatzea. Zientzialariek diotenez, gaur egungo elikadura da gure ekosistemaren hondamenaren eragileetako bat, baina, gure ustez, aukera bikaina ere izan daiteke aldaketa bideratzeko.

Elikadurak hiria, paisaia eta harremanak izateko modua diseinatzen ditu, eta, beraz, lan-esparru paregabea eskaintzen du politikak, proiektuak, tokiko ikerketak, plan estrategikoak, proposamen artistikoak eta utopiak proposatzeko, inpaktu eraldatzailea eduki eta ekarpena egingo dutenak gure ongizatean eta sare ekosozialaren berrikuntzan.

Hiri Elikatuak da La Plasitas hiriaren, elikaduraren, pertsonen eta biodibertsitatearen arteko harremana arte eta hiri-plangintzatik lantzeko garatzen dituen proiektuak biltzen dituen esparrua. Ikerketa hori 2008ko garraio-grebaren ondorioz sortu zen. Batez ere kamioilariak eta arrantzaleak parte hartu zuten greban, eta, egun gutxiren buruan, supermerkatuetako linealak hornikuntzarik gabe gelditu ziren.

Une hartan ohartu ginen bizi garen **hiriak elikadura-basamortuak direla**, eta hiritarrek ez dutela batere erlaziorik elikagaien ekoizpenarekin.

Arkitekto, hirigile eta paisajista gisa aztertu genuen hasierako kezka horrek beste kezka batzuk ekarri zituen ondoren, *gastrosofo* gisa.

Hiri Elikatuak hiru arazo aztertzen dituen ikerketa-ekintza bat da:

- Hiri elikadura-basamortua da.
- Gaur egungo elikadura-sistema globala kaltegarria da norberaren, komunitatearen eta ingurumenaren osasunerako.
- Landa-hiri harremana ez da bidezkoa, desorekan dago, eta harreman dikotomiko horretan hiriak ez ditu onartzen landa-aldeak dituen balioak, bere jakitegi gisa hartzeaz harantz.

Gure adierazpen artistikoa **politiko-poetikoa** da, eta gure lan bakoitzean dagoen funtsezko kontzeptua ***gastrosofia*** da, berreskuratutako (XIX. mendea) eta birdefinitutako termino bat: "elikaduraren inguruko zainketen teoria". *Gastrosofiak* pentsamendu-ekintza holistikoa du elikagaien inguruan eta balio-kate osoan, hala jakintzak, nekazaritza eta ekoizpen-espazioak eraiki dituzten herritarrak, nola paisaia eta hirien plangintza, botere-guneak eta elikatzen gaituen gizarte-antolamenduko moduak, bazkalondoa eta hondakinen kudeaketa barne hartuta. Begirada *gastrosofiko*a elikaduraren alderdi desberdinei begira dago.

Artea eta utopia bitarteko ahaltuak dira hausnartzeko eta zientzia gizartetik hurbilago dauden gaietara hurbiltzeko. Artearen bidez, orainak eta agertoki posibleak irudika ditzakegu, eta hausnarketa kolektiboa susta dezakegu, arreta berezia jarri gure hiriak elikatzeko moduan.

Hiri Elikatuak ikerketaren tresna eta emaitzen laborpen gisa, La Plasitas proiektu kulturalak eta hiri-eta lurralde-plangintzakoak garatzen ditu. **Proiektuaren azken helburua da hiri jasangarriago, bidezkoago, ludikoago eta biziago baterantz jotzea**, eta, horretarako, La Plasitasen ustez, elikadurak zeregin funtsezkoa betetzen du hiritarrak sentsibilizatzeko. Elikadurak balio kulturalak, sozialak eta ekonomikoak ditu, eta gure elikadura-ohiturei buruzko hausnarketa kolektiboak bideratu dezake hiriko bizitzako beste alderdi batzuei buruzko gogoetak.

Praktika agroekologikoak sartuz hiriko elikadura-katean, ekonomia kontzeptua zabalduz ekonomia afektibo eta libidinosoetara, eraginkorrak izateaz gain, kontuan hartzen baitituzte komunitatearen zaintza eta ospakizuna; eta *gastrosofia* kontzeptua erabiliz, elikadurari buruzko begirada holistikoa garatzen baitu. Horrela, hiritarra planteamenduaren erdian izango duten proiektuak eta politikak garatu ahal izango ditugu.

Hiri Elikatuak ikerketarekin gure bi lan-ildoak lotzen ditugu: arkitektura + hiri-plangintza eta kultura-proiektuak. Lehenengo lan-ildoan, **elikaduraren ikuspegia sartu nahi dugu hiri-plangintzan**, mugikortasun-, jasangarritasun- eta genero-ikuspegia sartu zen bezala. Bestetik, kultura-proiektuen esparruan, garatzen ditugun jardueretan arteak bitartekari-lana egiten du, **hausnarketa kolektiboa sustatzeko gure elikadura-ohiturei buruz**, eta ohitura horiek gure bizi-inguruneetan, eta norberaren, komunitatearen eta planetaren osasunean duten eraginari buruz.

Nola elikatzen da nahi dugun hiria? Gaitasuna sustatzen dugu orainaldi eta etorkizun posibleak eta ezinezkoak, bidezkoak eta jasangarriak, hobeak irudikatzeko. Sukaldaritzaren bidez, hausnartzen dugu nola elikatzen garen hirietan, nolakoak diren gure elikadura-sistemak eta nolako den landa-aldearekin dugun harremana, denok baitugu harremana janariarekin. Gure eguneroko bizitzan (ia) denok jaten dugu, askok erosten dugu, batzuek janaria prestatzen dugu eta oso gutxi ekoizten dute. Horrela, **elikadura-subiranotasunari buruz** hausnartuz, denok parte har dezakegu, pentsamendu utopikoa demokratizatzen da, sentsibilizatzen gara bizitzeko dugun moduz eta gure bizitzaren erantzule egiten garen.

Praktika horiek sinpleak izan daitezke, esaterako, osagaiak berreskuratzea, edo oso konplexuak, adibidez, hiri-plangintzan perspektiba aldatzeko proposatzea. Sukaldaritzak eta elikadurak aukera ematen digute etorkizuna iraganean ainguratzeko, iraganean baliagarriak izan ziren gauzak, tresnak, konponbideak, metodologiak eta narrazioak berreskuratu, birmoldatu eta berrerabiltzeko, irudikatu nahi dugun etorkizun posible eta ezinezko horretara egokitzeko. Sukaldaritzaren bidez, jateaz eta behar fisiko hori konpontzeaz gain, erlazio-mota hobe ere sustatzen dugu, **komentsalitatearen** bidez. Jateko mahai-zapia duen mahai baten inguruan ospatzea beti da modu ona besteekin konektatzeko eta komunitatearen aniztasuna ospatzeko.

Artea bitartekari gisa erabiltzen dugu, sentsibilizatzeko eta gure ohituretan beharrezkoak diren aldaketak proposatzeko, gure bizi-kalitatea hobetzeko eta **klima-aldaketa geldiarazteko** lagungarri diren aldaketak. Hainbat ekintza eta proiektutatik abiatuz, eztabaidari ekiten diogu: hirietan nola elikatzen garen, gure kontsumo-ohiturak nolakoak diren eta, ondorioz, **planeta nola zaintzen dugun**.

Artearen berehalako ondorioak aukera ematen digu malgutasunez eta modu ludikoan heltzeko auzi eta gaiei, eta horrek errazten du lehen begiratuan desberdinak ematen duten esparruak lotzea. Arteak bide ematen du arrotasuna eta hausnarketa bultzatzen dituzten irudizko agertokiak aurkezteko. Artea berehalakoa eta erradikala da. Aukera ematen du etorkizun posible eta ezinezkoak, etorkizun hobeak irudikatzeko.

Hona hemen Hiri Elikatuak ikerketaren proiektu artistiko-kulturaletako batzuk:

- **Ehungintza Handia:** ehungintzako lan parte-hartzailea, Sevillako metropoli-eremua elikaduraren ikuspegi utopikotik irudikatzen duena. Proiektu eta objektu hau Hiri Elikatuak ikerketaren komunikabidea eta sentsibilizazio eta hausnarketa kolektiborako bitartekoa da.
- **Jakintzen Agapeak:** mahai baten inguruko topaketa sortzaile propositibo hauek hausnarketa kolektiboa sustatzen dute hobeto elikatzeko moduari buruz. Lau orduko hausnarketa propositiboa egiten dugu, Sevillako bioeskualde elikatuari buruz, eta gero elkarrekin bazkaltzen dugu.
- **Bormujos Elikatzen:** azterlan estrategikoa, hiri-plangintzari eta hirian elikadura osasuntsua eta osasungarria izateko aukera hobetzeko ekintzei buruzkoa.

Gustatzen zaigu buruekin pentsatzea, eskuekin pentsatzea, oinekin pentsatzea. Pentsaera bakoitzak bere denbora eta estrategiak ditu.

Ehungintza Handian hiru sistemak aplikatzen ditugu.

Ehungintza Handia.

Gure praktika artistikoa hasi zen espazio publikoan janaria prestatzen (Berlin 1997), espazio horren ospakizun eta etxekotze gisa. Badakigu janariaren eta sukaldaritzaren bidez harreman-espazio trinkoagoak, organikoagoak eta sotilagoak sortzen direla. Hortik aurrera, beste eremu batzuk esploratu ditugu.

Ehungintza Handia Sevillako metropoli-eremuko bioeskualdea irudikatzen duen mapa bat da, lurralde urbanizatu horretako elikagaien ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren ikuspegi utopikotik egina. Elkarlaneko artelana da, eta pixkanaka eraikitzen ari gara, hainbat pertsona eta talderen esku-hartzearekin eta parte-hartzearekin. **Ehungintza kultura da.** Gastronomía eta jostekaren denbora pausatua dira, aukera ematen dute hausnarketa kolektibo hori egiteko, guztion artean ohartzeko nola eragiten duen gure elikatzeko moduak gure bizi-inguruneetan eta komunitateetan, eta nola proposatu ditzakegun aldaketak gure kontsumo-ohituretan, trantsizio jasangarriago, bidezkoago eta solidarioagoa izango duen hiri baterantz jotzeko. Elikadurari buruz hausnartuz, denok parte har dezakegu. Hiri hobea prestatu.

Ehungintza Handia irakaskuntzako berrikuntza – proiektuetan oinarritutako ikaskuntzako proposamen baten muin gisa hasi zen eraikitzen, Sevillako ehungintzaren sektoreko Lanbide Heziketako Pablo Picasso Institutuarekin. 2019-2020 ikasturtean, patroigintzako eta jantzigintzako erdi-mailako eta goi-mailako bi ikasgelekin patroia eta diseinua egin, eta Sevillako metropoli-area osatzen duten 30 udalerrri baino gehiago josi genituen. Ehungintzaren industriaren sistemari jarraituz, bioeskualdeko herri eta ibaien patroiak inprimatu genituen, eta artistikoki diseinatu genituen nekazaritzako elikagaien bost paisaien estanpatuak: larrea, baratzea, ibarra, landazabala eta padura. Josteko garaietan, galderak egiten genituen gure elikadura-ohiturei buruz, eta agerian jartzen genituen inkongruentziak, praktika txarrak eta onak, plazerak eta familiaren memoria. Elikadurak ahalmen handia du gogorarazteko.

Murrizketa bakarra zen materialez osatutako legenda bat, zein espazio-mota zen adierazten ziguna: alde historikoetarako urrezko oihalak, industrialdeetarako zilarrezatuak, bizitegiatarako koadroekikoak, parkeetarako berdeak, uretarako urdinak. Eta hamaika mota gehiago, herriak eta hiriak banatzeko erabili genituen zonifikazioetarako. Prozesua axola zitzaigun emaitza baino gehiago, baina espero ez bagenuen ere, estetika oso ederra izan zen.

Covid-ak ekarritako itxialdiak moztu zuen lan-urtean, harremanetan jarri ginen Reims hiriarekin (Frantzia), joskintzako beste institutu batekin, eta ezagutzak eta esperientziak truka genituen ahal izan genuen bitartean. Orain (2023) berriz jarri gara harremanetan. Ehungintza Handiaren forma Reims hiriko hornidura-merkatuko beiratearen forma da.

Aldi horretan, Ehungintza Handia erakusgai egon zen, solasaldiak izan ziren, narratiba berriak proposatu, eta obrak bizitza propioa hartu zuen. Aurkeztu zen eta Sevillako Udalak Sevillako Artilleria Fabrikan (2021eko maiatzean) antolatutako erakusketaren arrazoia izan zen, eta *Gastrosofiako* lehen kongresua bertan egin zen (2021eko ekainean).

Urtebetean zehazteko asmoarekin hasitako pieza eraikitzen ari da oraindik. Pixkanaka, ehun birziklatuz estaltzen ari da alegiazko lurraldea. Udalerriak amaitu ondoren, orain (2023) paisaia produktiboak josten ari gara, auzoko joskintza-tailerren bidez. Padurak eta baratzeak dagoeneko bideratuta ditugu. Gero, larrearekin, landazabalarekin eta ibarrarekin jarraituko dugu.

Joskintza sortzaileko tailer bakoitza amaitzeko, bazkari bat egiten dugu mahai baten inguruan, paisaia produktibo horren menu batekin. Paduran, aperitibo gisa, 1980ko hamarkadan Puebla del Rion asmatutako plater bat zerbitzatzen dugu: piper erreen "entsalada", izkira salteatuekin eta arrautza frijituekin, sekulakoa. Lehen platerean, Guadalquivirreko karramarro gorriak, Cajun (AEB) erara prestatuak, bertakoak baitira: karramarro-gisatua, artoa eta patatak. Bigarren platerean, ohiko arroz saldatsua, padurako ahatearekin.

Orain landazabala asmatzen ari gara.

Artelan bat eraikitzeak aukera ematen digu berehala komunikatzeko, sentsibilizatzeko eta irudikatze kanal bat izateko, kanal biziago, bisualago eta poetikoago bat. Ehungintza Handia, beraz, artelan bat da, eta, gainera, ikerketa parte-hartzaile eta kritiko bat da hiri-paisaiari buruz, hirietako elikaduraren ikuspegitik egina.

Lilian Weikert




Kongresua Gastosofia




Lorategia Gastosofia



El Gran Textil



El Gran Textil



El Gran Textil. Planoa



El Gran Textil. Prozesua

LILIAN WEIKERT:



Lilian Weikert La Placita Sevillako arkitektura- eta kultura-proiektuen estudioko kidea da. Topagune horretan, proiektu artistikoak, enpresarialak, publikoak eta pribatuak biltzen dira.

Lilian matematikaria da Berlingo Unibertsitate Teknikoan (Alemania), eta masterra du egina Paisaiaren Babes, Kudeaketa eta Antolaketan (Universidad Hispalense). Paisajista izateko prestakuntzan, bereziki interesatu da pertzepzio-prozesuek eta zentzumenek bizitza-ingurunea ezagutzeko duten garrantzia aztertzen. Bere ustez, paisaia bitarteko bikaina da hezkuntzarako, ez bakarrik ingurumen-hezkuntzarako, balioetan oinarritutako hezkuntzarako ere bai. Paisaiaren Jardunbide Egokien katalogoak idazten lagundu du, Herri Lan Sailarentzat eta Ingurumen Ministerioarentzat.